

berbarotarra



elkartea



Berbaroren Batzar Nagusia

Martxoaren 25ean Berbaroren Batzar Nagusia egin zen Plateruena Kafe Antzokian.

Urteko zita inportantea da. Zuzendaritzak goizeko 10etara-ko eginda zeukan deiari leial erantzun genion banaka batzuk. Pantailan Berbaroren logotipoa agertzen zen. Geroago, hitzak hartu zuen Plateruenak batzarrerako prestatuta zeukan espazioa. Berbak ahotan eta berbak pantailako irudietan; urte beteko jarduna argi-foku baten bidez kontaktuta: helburuak, asmoak, egitasmoak, egindakoak eta egin gabekoak, lorturikoak eta lortu gabekoak, diru-kontuak... Azken batean, elkarteari buruz jakin beharko genukeen guztia iragazi zigun fokuak, eta pantailan erakutsi: 2005eko balantze positiboa eta 2006ko egitasmo sendoa. Osagai ezinbestekoak gogotsu ekiteko.

Urteko zita inportantea da. Elkartearen berri ematen da, elkarrekideekin jarduteko aukera izaten da, erotismo puntua nabari daiteke azalpeneko ahotsetan, keinuetan, begiradetan... Garai berriak, erronka berriak, asmo berrituak, ilusioa ere nabari daiteke. Elkartea sendo eta osasuntsu dagoen seinale. Urteko zita inportantea da. Fokua amatatu da, baina ahotsak ez dira isiltzen. Orain musikak hartu du espazioa eta batzarkideok atsedena hartu dugu. Geroago jarraituko dugu elkarrekin berriketan, amestetan Plateruenak prestatzen digun menu gozoari esker.

Felice



Platerueneko Saltsa

Plateruenako menuan eskaintza anitza dago. Kultur ekitaldiaz gain, bazkari menuak ere aukeran baitaude. Kafe Antzokiko beste saltsa bat da perrexila eta olioarena. Chefa Andoni Salaberria dugu. Sukaldari honek urteak daramatza kazola artean, beraz, Plateruenako sukaldea ez da berria berarentzat.

Andonik ez du bakarrik lan egiten. Inguruan lan talde aktiboa du Jon Jauregiren ardurapean. Ez da lan makala barruan eta kanpoan egiten dena, mahaiak atera, prestatu, berriro ere batu eta erretiratu arratsaldeko bezeroak lekua izan dezaten, lan dezente.

Gabeko animazioa, algara eta zarata lasaitasun bihurtzen da bazkalorduan.

Euren esanetan, kalitatea prezio onenean eskaintzen dute. Etxeko espezialitatea zein den galdetzerakoan ez dagoela espezialitaterik diote, baina bezeroek asko estimatzen dituzte platera ezberdinak, esaterako, txipiroiez beteriko piper berdeak saltsa beltzarekin.


Eta errezeta arin eta on bat eskatzera ausartu gara, orain udaberrian gaudela, entsaladaren bat edo...

Hona hemen:

Oilasko entsalada: Oilasko papar bi egosiak, letxuga, sagarra, artoa eta york pernila. Dena ondo txikitu eta bukatzeko maionesa eta saltsa arrosarekin nahastu. Ederra benetan!

Amaitzeko galdera bat: zer ezin da onartu jatetxe batean? Bazkaria hotz ateratzea, Andoniren ustez. Jonek ez du jasaten plater batek bestera luze itxaron beharra.

ON EGIN !



Urte hasieran hasi eta apirilaren 5a arte, Durangoko ume eta gurasoek, aste barruko aisialdiko eskaintza berria izan duzue: **Plateruenako LUDOTEKA!**

Abenduan Antzokiaren proposamena heldu zitzaigun Berbarora. Plateruenan arratsaldero batzen zen ume kopurua ikusita, zerbait egin behar zela ikusi zuten eta, gaia pixka bat landu ondoren, gustura hartu genuen guk proposamena!

Oihane Barrutia Berbaroko begiraleak antolatu eta kudeatu ditu umeekin egin diren tailer eta jokoak, Berbaroren gazte arloarekin batera. Antzokira hurreratu gara bere esperientziaren berri izan dezazuen elkarriketatxo honen bitartez.


• Zein izan da ludotekaren helburua eta zer egin duzue?

Ludoteka honen helburu nagusia umeen aisialdia dinamizatzea izan da eta euskerazko eta kalitatezko aisialdia eskaintzea. Era guztietako tailerrak eta jolasak egin ditugu, egun bakoitzeko ume kopuruaren arabera eta hauen adinaren arabera.

• Zenbat ume eta zein adinetakoak elkartu dira hemen?

Gorabehera handiak izan dira eguraldiaren arabera; 50 ume ere egon izan dira arratsalde batean elkarrekin! Eta adina ba... txiki-txikienetatik 10 bat urtera arteko umeak batu izan dira hemen arratsalde pasa.

Esan bezala, udaberriko eguraldi onarekin batera, etengabeko etorri da, baina irailean indarberritua itzuliko zaigu ludoteka, neguari umore onaz aurre egiteko.




Ludoteka Plateruenean



UDALEKUAK 2006

2004. urteko udaberrian egindako gogoeta prozesuaren ondorio nagusienetarikoa bat ume eta gazte arloa sendotzeko beharra dagoela izan zen. Hori horrela izanda, 2005. urtean udaleku propioak berreskuratzea lortu genuen elkarrearen inguruko gazte koadrila baten laguntzarekin. 2006rako erronkak hauexek dira: batetik, urtean zehar gazteekin ekintzak egitea eta, bestetik, iaz berreskuratutako udalekuekin jarraitzea, parte hartzaile kopurua handitzea eta udalekuen kalitatea hobetzea.

Iaz Urbanan egon ziren gaztetxoak eta eguraldia lagun izan ez bazuten ere, primeran pasatu zuten. Nagusiagoek



Armintza eta Orio bitarteko bidea egin zuten motxila lepoan hartuta. Zelan moldatuko dira aurtengo ibilbidea egiteko?

Aurten ere, udaleku finkoa izango dugu gazteenentzat eta ibiltaria nagusiagoentzat. Gainera, Deustu-

ko Berbaizu euskeraren elkartearekin elkarlanean antolatutako ditugu udalekuak, beraz, beste gazte batzuk ezagutzeko aukera aparta izango dugu. Badakizue, aisialdia euskeraz gozatzeari nahi baduzue, animatu zaitezte eta har ezazue parte gure irteeretan eta animatu itzazue zuen seme-alabak, ikasleak edo lagunak ere gurekin ondo pasatzera!!!

UDALEKU FINKOA: 9-13 urte bitartekoentzat izango da, Mendigorrian (Nafarroa), uztailaren 17tik 28ra.


UDALEKU IBILTARIA: Bidarraitik Izabara (Nafarroa) egingo da, uztailaren 2tik 16ra bitartean, 13-16 bitarteko gazteentzat.

UDALEKUAK 2006

FINKOA
Uztailaren 17tik - 28ra

MUGIKORRA
Uztailaren 2tik - 16ra

PREZIOA: 200euro • BAZKIDEAK 180euro
MATRIKULA EPEA: MAIATZAREN 8ra arte
MATRIKULATZEKO TOKIA: BERBARO (Pinondo etxea) 946 20 19 18



MARTXOAK 31 Durango bonbardatu zuten eguna gogoan....

Aurten ere, azkeneko sei urtetan bezala Kriskitin, Gerediaga eta Berbarok hainbat ekitaldi egin ditugu (azkeneko urte bitan udalaren laguntzaz) gerra zibilean 1937ko martxoaren 31n gertatutakoa gogoratzeko eta gogorarazteko. Aurreko egunerako antolatutako Oroime-



nari buruzko lehen jardunaldiarekin hasi genituen oroimen ekitaldiak. Sarraski egunaren urteurrenean, kanpaiak, hilerriko lora eskaintza eta gero eta jende gehiago batzen duen Andra Maria elizpeko ekitaldi hunkigarria egin zen. Aurten ere, ekitaldi laburra, zabala, herritarrei zuzendutakoa eta polita izatea lortu dugu bertaratutako musikari, hizlari, omendu eta ikusle guztien laguntzari esker. Eguna amaitzeko Joseba Tapiak kontzertua eman zuen San Agustinen gerra sasoiko gertaerak gaitzat dituen abestiak eta bertsoak kantatuz.

Bestalde, ekitaldietako programazioa barik, alkatearen gonbidapena baino heldu ez zitzaizuen bazkideoi barkamena eskatzea tokatzen zaigu. Amaitzeko esan, datorren urteko ekitaldietan ere elkar ikusiko dugulakoan gaudela.



Argitalpen berriak

ARDOBIDEZ

(Arabako errioxa) Ibilbide, enologia eta upategien gida praktikoa

EGILEA:

Mikel Garaizabal

EDITOREAK:

Mikel Garaizabal

eta di-da

ardo bidez
arabako errioxa
gida praktikoa



Gida honek lau atal ditu. Lehenengo atalean Arabako Errioxa ezagutzeko aukera ematen duten txangoak, oinez, bizikletaz edo kotxez, lagunartean edo umeekin. Bigarren atalean, enologiari buruzko oinarritzko nozioak daude. Upategi-rajotean zer aurkituko duzuen, zer ikusiko duzuen eta bertan emango dizkizueten azalpenak ulertzeko jarraibideak topatuko dituzue. Hirugarren atalean, Arabako Errioxako upategien zerrenda osoa duzue. Azkenik, mapa lagungarri bat ere badu liburu honek, errepide eta herrien berri zehatza emateaz gain, txangoen azalpena eta upategien kokapena ere azaltzen dituena. Liburu elebitan idatzita dago.

Prezioa: 8 euro

Ikimilikili... klik euskaraz


Berbaro.com Oraingoan ez gara urrunera joango, etxean geratuko gara

Berbaro.com web gunea izan diren aldaketen berri emateko. Urte batzuk dira berbaro.com interneten dagoela. Sor-tu genuenean gune dinamikoa bazen ere, denborarekin ezin genion hasierako dinamika horri eutsi, bertako langileok ez baikeneukan gunea egokitzeko aukerarik eta, ondorioz, berriak zahartzen joan ziren web gune estatikoa bihurtu arte.

Topaguneak eman digu aldatzeko aukera hori eta horretan gabilta orain buru belarri.

Berbaro.com-en gertu gertutik aurkitu ditzakezue elkar-terko informazioa, berriak, artikulua, agenda, argazkiak eta loturak, besteak beste.

Bazkideek osatutako elkarteak garen heinean, zuen ekarpenak eta iradokizunak balio handikoak dira guretzat. Sartu, kuxkuxeatu eta, elkarteko foroa martxan dagoenean, iritziak eman. Ordura arte, badakizue non gauden eta jakizue berbaro.com denon artean egiten dugula. Mila esker internauta.



Martxoaren 11n Berbarok Oiarbide sagardotegira irteera antolatu zuen. Eguna euritsua izan bazan ere, giroa ezin hobea izan zen. Bapo afaldu ostean dantza egiteko aukera ere izan genuen gure trikitilariei esker.

Gazte arloko teknikari berria

Ianire joan zaigu gazte arlotik eta Eñaut Solaguren zornotzarra etorri da bere ordean. Proiektu asko izango ditu bere gain. Ondo etorri Eñaut!

